



## MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI BURUZKO ABISUA 5580/2023 Zkia

Sortutako data eta ordu lokala: 2023/01/18, 10:00.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2023/01/18, 19:30  
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

### ◆ Zergatia:

Elurra: Prezipitazioa elur moduan 1000 m-tik Behera  
Itsasaldeko Arriskua: Nabigazioa lehenengo bi milietan  
Prezipitazio iraunkorra  
Haizea: haizeguneetan

### ◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Asteazkena, hilak 18:

- Alerta Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Elur-kota 400 m inguruan kokatuko da, noizbehinka 200 m-ra jaitsiko da. Zaparrada txiki-ertainak botako ditu; sarri eta ugari botako du, bereziki Kantauri isurialdean, eta bertan prezipitazioa oso ugaria izan daiteke. Trumoi-ekaitzak izango dira eta txingorra botako du, bereziki Kantauri isurialdean. Barnealdean izotz txikia egingo du, mendi inguruetakoz zenbait lekutan handia. Egunaren gainerako orduetan aurreikusitako lodierak: 10-30 cm 1000 m-ra, 5-20 cm 600 m-ra, 0-5 cm 200 m-ra.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4 m ingurukoa izan daiteke. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3,5 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Periodoa: 14-15 s. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da 4-5eko indarrarekin eta 6ko tarteekin. Itsaskia edo itsaski handia eragingo du, itsaso zakarreko guneekin.

- Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, 03etatik (ordu lokala) osteguna, 24etara (ordu lokala) bitartean Kantauri isurialdeko zenbait lekutan 24 orduan 60 l/m<sup>2</sup> baino gehiago pila daitezke. Zaparrada txiki-ertainak botako ditu; sarri eta ugari botako du, bereziki Kantauri isurialdean, eta bertako zenbait lekutan prezipitazioa oso ugaria izan daiteke. Egunaren gainerako orduetan 20-40 l/m<sup>2</sup> inguru pila daitezke Kantauri isurialdeko zenbait lekutan, eta 5-15 l/m<sup>2</sup> inguru gainerako tokietan.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala.

Ipar-mendebaldeko haize-boladek puntualki 80-100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneetan, bereziki kostaldean eta ekaitz-guneetan.

Osteguna, hilak 19:

- Alerta Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 09etara ordu lokala.



Elur-kota baliteke 500 m-ren inguruan kokatzea eta goizaldean noizbehinka beherago; goizean igotzen joango da eguerdi partean 600-800 m-ren inguruan kokatu arte. Kantauri isurialdean zaparrada txiki-ertainak botako ditu, sarri botako ditu eta prezipitazioa ugaria izango da, eta baliteke zenbait lekutan oso ugaria izatea; gainerako lekuetan zaparrada txiki-ertainak botako ditu. Trumoi-ekaitzak jo eta txingorra bota dezake, bereziki goizaldean eta Kantauri isurialdean. Barnealdean izotz txikia egingo du, mendi inguruetakoz zenbait lekuetan handia egingo du. Egunaren gainerako orduetan aurreikusitako lodierak: 5-20 cm 1000 m-ra, 2-10 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

- Abisu Horia elurragatik barnealdean 09etatik 18etara ordu lokala.

Goizean elur-kota igotzen joango da eguerdi partean 600-800 m inguruan kokatu arte, eta arratsaldean igotzen joango da 1200-1500 m inguruan kokatu arte. Kantauri isurialdean zaparrada txiki-ertainak botako ditu, sarri botako ditu eta prezipitazioa ugaria izango da, eta baliteke zenbait lekutan oso ugaria izatea; gainerako lekuetan zaparrada txiki-ertainak botako ditu. Kantauri isurialdean goizean goiz baliteketrumoi-ekaitzak jotzea eta txingorra botatzea. Mendi inguruetan izotz txikia egingo du.

Aurreikusitako lodierak: 5-10 cm 1000 m-ra, 0-5 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

- Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala.

Astlehena, 03etatik (ordu lokala) osteguna, 24etara (ordu lokala) bitartean Kantauri isurialdeko zenbait lekutan 24 orduan 60 l/m<sup>2</sup> baino gehiago pila daitezke. Kantauri isurialdean zaparrada txiki-ertainak botako ditu, sarri botako ditu eta prezipitazioa ugaria izango da, eta baliteke zenbait lekutan oso ugaria izatea; gainerako lekuetan zaparrada txiki-ertainak botako ditu. Ostegunean 40-60 l/m<sup>2</sup> inguru pila daitezke Kantauri isurialdeko zenbait lekutan, eta 10-20 l/m<sup>2</sup> inguru gainerako tokietan.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 12etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4 m ingurukoa izango da; jaisten joango da, eguerdi partean 3,5 m ingurukoak altxatu arte. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3,5 m inguruko olatuak altxatuko ditu, eguerdi partean 3 m ingurukoak. Periodoa: 13-14 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da 4-5eko indarrarekin; goizaldean eta goizean goiz ipar-mendebaldekoa nagusituz, eta eguerdian hego-mendebaldekoa nagusituz. Itsaskia edo itsaski handia eragingo du, eguerdi partean itsaskirria.

#### ◆ Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:

Pilatutako prezipitazioa (l/m<sup>2</sup>) atzo asteartea, hilak 17, 06:00etatik hasi eta gaur, 06:00etara bitartean:

Arteaga 65  
Alzola 61  
Berriatua 52  
Mallabia 51

Gaur asteazkena, hilak 18, haizeguneetan neurtutako haize-bolada maximoak (km/h):

Matxixako: 101  
Higer 78  
Santa Clara 78

Sigue la información en Twitter-Infomazioa Twitter-en jarraitu.

@112\_SOSDeiak @Euskalmet